



EiTBren Gizarte-erantzukizuna 2007-2008ko memoria

A ERANSKINA Enpresa gobernatzeari buruzko txostena

4 dokumentu ditu EiTBren gizarte-erantzukizunari buruzko memoriak.

EiTBren Gizarte-erantzukizuna. 2007-2008ko memoria

A eranskina: Enpresa gobernatzeari buruzko txostena

B eranskina: GRI taula (informazioa)

C eranskina: GRI taula (errendimendu-adierazleak)

Aurkibidea

3	Aurkezpena (Zuzendaritza Kontseiluak egin du)
4	1. atala: Enpresaren profila <i>Enpresa-egitura ♦ Eskaintza ♦ Hedapena ♦ Enpresa-partaidetzak</i>
7	2. atala: Gobernu arduratsua
8	Gardentasun-nahia
8	Misioa, Ikuspegia eta Balioak
9	Gobernu sistema korporatiboa <i>1) Zuzendaritza-taldea ♦ 2) Gobernu-organoak ♦ 3) Kudeaketa-sistemak</i>
14	Kontrol-organoak
17	Zerbitzu publikoa eta autorregulazioa
22	3. atala: Gizarte-erantzukizuneko eredia <i>EiTbren Gizarte-erantzukizuna eta Plan Estrategikoa ♦ EiTbren Gizarte-erantzukizunaren dimentsioak ♦ EGE kudeatzea ♦ «Stakeholder»ekiko erlazio-ikuspegi berria ♦ EGEen komunikazioa ♦ Interes-taldeak dimentsioka tal- dekatzea</i>

Aurkezpena

2008ko ekainean, EiTbren gizarte-erantzukizuna bideratzeko interesa zuten gizarte-eragileen 120 ordezkari baino gehiago bildu zituen EiTbK, Bilboko egoitza berrian. Hiru gai hauei buruz hitz egiteko eta iritzia entzuteko topagunea izan zen:

- ✓ Zer ekarpen egiten dio “gizarte-erantzukizun” kontzeptuak EiTbri eta gizarteari?
- ✓ Euskal gizarteko zer apustu edo erronka bultzatzen ditzake EiTb bezalako komunikabide publiko batek?
- ✓ Hautatutako apustu edo erronketatik, zer proiektu edo ekintza zehatzi hel diezaieke EiTbK?

Duela urtebete baino konpromiso esplizituagoa agindu diezaiokegu orain gizarteari, hiru gai horien inguruan hausnartzeko eta aztertzeke egin den barne-eztabaidagatik, eta gizarteak egin ditudun ekarpenagatik.

EiTbren xedeak dio gure gizarte-helburua *pertsonen bizitza aberastea dela, kalitatezko multimedia-informazioa eta -entretanimentua eskainita*. EiTbK, aurrekoaz gain —hori bera ere ez da gutxi—, iraunkortasunaren eta komunikazioaren aldeko gizarte-konpromisoa ere badu. Bi hitz horiek gustatzen zaizkigu, beste batzuekin batera, eremu askotako jendearekin batera, etorkizuna eraikitzeaz ari direlako, protagonista partekatuekin lan eginez.

Ikuspegi horrek *plus* korporatibo bat identifikarazten digu EiTbN, eta horrekin ere konprometitu gara: “EiTb+” esaten diogu. Gure eguneroko zerbitzutik harantzago doan gizarte-konpromisoa da, eta gure erkidegoko gizarte-sareari balioa eransteko eremu berriak esploratzen ditu.

Gure gain hartu dugu lankidetzaz. *Stakeholder*ekin, hau da, EiTbren gizarte-erantzukizunaren arloan zuzeneko erlazioa dugun lagunekin, parte-hartzea eta elkarrizketa lortu nahi ditugu.

Argitu dugu gizarteari enpresa-kudeaketa arduratsua bermatuta garatu behar dugula EiTbren gizarte-erantzukizuna, herritarrei aberastasuna eta gizarte-balioa eransteko izan dadin. Era berean, gizarte-erantzukizuneko sei dimentsio identifikatu ditugu, borondatezko ikuspegi nabarmena dutenak, euskal gizarteari laguntzeko izango diren interes kolektiboko programak susta daitezkeen.

Memoria honetan deskribatu dugu konpromiso hori, eta 2007-2008 aldian egindako ekimenak jaso ditugu. Hausnarketarako eta azterketarako materiala ere bada memoria, etorkizunean EiTbren gizarte-erantzukizuna bideratzeko erabakiak har daitezkeen. Alde horretatik, EiTb+ konpromiso iraunkorra da, partekatua eta hazteko borondatea duena.

Bilbo, 2009ko martxoa

Juan Diego, Estrategia Taldeko zuzendaria
Bingen Zupiria, EiTbKko zuzendaria
Julian Beloki, Irratiko zuzendari-koordinatzailea
Mikel Agirre, Esplotazio eta Ingeniaritza zuzendaria
Manu Castilla, Gizarte Harremanetarako zuzendaria



ENPRESA GOBERNATZEARI BURUZKO TXOSTENA

4

1. atala:

enpresaren profila

EiTB Eusko Jaurlaritzaren mendeko *erakunde publikoa* da, 1982an Eusko Legebiltzarrak sortua Autonomia Estatutuaren 19. artikulua babesean, gizarteak botere publikoei izaera publikoko bertako ikus-entzunezko komunikazio-talde bat sortzeko egindako eskariari erantzuteko.

Sortu zenetik, EiTBk helburu hau izan du beti: adierazpen-askatasunerako eskubidea eta komunikatzeko eta informazioa libreki jasotzeko eskubidea defendatzea, zeregin hori gizarte demokratikoaren eskakizunen arabera betetzea, eta euskararen erabilera normaliza dadin bultzatzea.

Enpresa-egitura

EiTBk lau sozietate anonimoren bidez jarduten du, eta horien gaineko % 100eko partaidetza du: Euskal Telebista SA (telebista), Eusko Irratia SA eta Radio Vitoria SA (irradiak) eta EITBNET SA (Internet).

2008an egoitza-plana burutu du EiTBk. Prozesu horren bidez, bost egoitza izatetik hiru egoitza izatera pasatu da. Bilbon daude gizarte-egoitza, zerbitzu nagusiak eta telebistaren, irratien eta Interneten negozio-unitateak. Donostian, telebista-programak ekoizteko zentroa, eta euskarazko irratien egoitza. Eta Gasteizen, Radio Vitoriaren egoitza eta telebistaren hiriko korrespondentsalia.

Horietaz gain, *Iruñean* eta *Baionan* ere baditu irradi- eta telebista-zentroak, bai eta korrespondentsalia iraunkorrak ere *Madriren*, *Bartzelonan*, *Bruselan*, *Pekinen*, *Londresen*, *Parisen*, *Buenos Airesen* eta *New Yorken*.

Oro har, EiTB taldean 900 lagunek egiten dute lan zuzenean, eta beste 600 bat lagun ditu enplegatua, EiTBk eragindako enplegu gisa. 176 milioi euroko ustiapen-aurrekontua du (2008an).

Eskaintza

EiTB taldeak Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan emititzen du, euskaraz eta gaztelaniaz, telebista, irradi eta Internet euskarrien bidez. Frantsesez eta ingelesez ere eskaintzen du informazioa, Internet bidez. Europan, kasu bitxia da EiTBrena, *eskaintza nagusia* bi hizkuntzatan egiten duen komunikazio-enpresa bakarra delako.

1995eko Euskal Gizataldeen Biltzarrean hartutako erabakiaren ondoren, EiTBk nazioarteko emanaldiei ekin zien. Kanal berriak igortzen hasi zen, atzerriko euskal herritarrentzat eta gure edukietan interesatutako nazioarteko herritarrentzat.

ETBk sei telebista-kanal ditu: **ETB1**, **ETB3** eta **Betizu**, euskaraz; **ETB2**, gaztelaniaz; **ETBsat**, bi hizkuntzatan, Europarako, eta **Canal Vasco**, gehienbat gaztelaniaz, Amerikarako.

Bost irradi: **Euskadi Irratia** eta **Gaztea**, euskaraz; **Radio Euskadi** eta **Radio Vitoria**, gaztelaniaz, eta **EiTB Musika**, kultura-gaiak eta kalitatezko musika ematen dituen.

Internet-eskaintza www.eitb.com atariaren bidez egiten da, eta programazio eleaniztuna eskaintzen du, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Informazioa jaso nahi duten ikus-entzuleentzako eduki bereziak ditu. Gaikako atariak, parte hartzeko kanalak eta blogak ere baditu.

Hedapena

Telebista, irradi eta Internet euskarriak banaketa-enpresa espezializatuen bidez hedatzen dira. EAEn, irratien eta telebistaren lurreko banaketa *Itelazpi* sozietate publikoak egiten du. EiTBk itun estrategikoa du sozietate horrekin, eta EiTBren Zuzendaritza Kontseiluko kide bat sozietate publiko horretako Administrazio Kontseiluko kide da.

Euskadin nahiz Estatuan jarduten duten kable, IPTV eta satellite bidezko zenbait banaketa-operadoreekin ere baditu itunak EiTbK. Nabarmentzekoak dira, oso sartuta daudelako: *Euskaltel* -EAEko etxeen ia erdiek operadore honen bidez sintonizatzen dituzte telebista-kateak, *Digital+* -ia bi milioi familia daude harpidetuta Estatuan, *Imagenio* eta *ONO*.

Internet bidezko hedapenerako *Telefonicarekin* eta *Akamarekin* egindako hitzarmena nabarmendu behar dugu, ahalmen handia ematen dutelako *eitb.com* ataria eta EiTbren multimedia-erdiak hedatzeko.

2009-2010 aldian, TDT sistema ezarriko da telebistaren alorrean, eta gertakari garrantzitsua izango da, inondik inora ere. Ikus-entzuleei eragingo die, telebista-seinalea hartzeko sistema aldatuko duelako. 2010eko apirilaren 3rako dago aurreikusita itzalaldi analogikoa.

Irratia EAEko herritar guztiei iristen zaie. Seinalea hobeto hartzeko planak daude.

Nafarroan, ekimen pribatuek edo udal-ekimenez instalatutako errepikagailu-sarearen bidez hartzen dira EiTbren irrati- eta telebista-kanalak. Bestalde, Iparraldean, *Syndicat Intercommunal pour le soutien à la culture basque* (Iparraldeko toki-erakundeak osatzen duten elkarteak) EiTb eta TDFrekin (Frantziako teledifusio-enpresarekin) egindako hitzarmenari esker hartzen da ETB1.

Enpresa-partaidetzak

EiTb taldeak merkataritza-izaerako sozietateak sortu ditu, zerbitzu publikoa emateko helburuari probetxu hobea ateratzeko jarduerak egiteko. Enpresa horien kapitalean gutxiengoa duen kide gisa hartzen du parte EiTb taldeak.

- *Expressive, S.L.* Publizitatean eta komunikazio-enpresekin erlazionatutako produktu eta zerbitzuetan espezializatutako komertzializazio-enpresa da. Bilbon du egoitza nagusia, eta ordezkariak Madrilen eta Bartzelonan.
- *VilauMedia, S.L.* Telebista korporatiboak sortzen ditu, eta enpresetarako eta instituzioetarako ikus-entzunezko komunikazio-konponbideak ematen ditu.
- *Media for Future, S.L.* Zerbitzu profesionalak ematen ditu, eduki multimediai kudeatzeko eta egiteko.
- ETB, S.A. *Euskaltel SA*ko partaide ere bada. Telebista digitaleko eta telekomunikazioetako euskal operadorea da Euskaltel.

EiTbren partaidetzak 2008-12-31n

*Expressive, S.L.*n 33%
*VilauMedia, S.L.*n 25%
*Media for Future, S.L.*n 10%
*Euskaltel, S.A.*n 5%

EiTb taldeak irabazi-asmorik gabeko erakunde hauetan ere hartzen du parte:

- *Vicomtech.* Irabazi-asmorik gabeko elkarteak da. Ordenagailu bidezko grafiko interaktiboak eta teknologia multimediaei aplikatutako ikerketa-zentroa da. EiTb taldeak eta Alemaniako INI GraphicsNet taldeak sortu zuten. Gaur egun 15 kide ditu elkarteak, eta Donostiako Teknologia Elkartegian (Miramonen) du egoitza.
- *Euskadi Kirola Fundazioa.* BATEk (*Basque Teamek*) kudeatzen du fundazioa. Euskadiko goi-mailako kirola sustatzea du helburu, eta goi-lehiaketan euskal kirolari asko egoteko bidea ematen du. EiTbK EAEko Administrazio Orokorrekin batera hatzen du parte, % 50ean.

Bestelako eremu batean, hau da, kultura babestekoan, EiTbK hainbat kultura-erakundetan babesle gisa hartzen duela parte nabarmendu behar da; zehazki, *Guggenheim museoan* eta *Bilboko Arte Ederren museoan*.

2. atala:

gobernu arduratsua

Gardentasun-nahia

Taldeko ia berrehun profesionalek hartu zuten parte EiTbren egoitza berria diseinatzen. Ekarpen garrantzitsuenetako bat azalera handiak eta eremu argiak egitea izan zen, mahai biribil asko zituena, lan-harremanak eta -sareak sustatzeko. Eremu teknikoak, bilera-gelak eta bulegoak beirazkoak dira, eta horietan gertatzen dena gainerako guztiek ikus dezakete.

Horrek guztiak harreman-eremu ireki eta garden egiten du EiTb. Barnerantz eta kanporantz gardena.

Ikuspuntu horrek parte-hartzeari, konfiantzari eta enpresa-proiektuan sinesteari laguntzen diola uste dugu.

Horregatik, eta hartu dugun enpresa-ikuspegiarekin koherente izateko, memoria hau idatzita, gardentasun- eta ikusarazte-politika hori jarri nahi dugu agerian.

MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Misioa

Pertsonen bizi-tza aberastea, kalitatezko multimedia-informazioa eta -entretanimendua eskainita. Hori modu eraginkorrean eginda, euskararen erabilera sustatzen laguntzen dugu, euskal ikus-entzunezkoen sektorea garatzen dugu eta Euskadiren irudia zabaltzen dugu munduan.

Ikuspegia

Euskadin, informazioaren alorrean buru izatea, euskal herritarrak harrapatu eta horien gogoia beteko duen multimedia-eskaintza eginda, eta entretanimendua euskararen erabilera garatzeko funtsezko faktore bihurtzea.

EiTb markaren balioak

- ✓ *Irekia.* Guztiengana, ikusten gaituztenengana eta ikusten ez gaituztenengana, modu erakar-garran iristen gara.
- ✓ *Dibertigarria.* Irribarre egiten dugu, ondo pasatzen dugu eta horixe helarazten diegu gurekin harremanetan jartzen direnei.
- ✓ *Hurbilekoa.* Bertan gaude. Eskura gaude. Arreta osoa jartzen diegu gurekin harremanetan jartzen direnei.
- ✓ *Abangoardista.* Teknologiarik aurreratuenak aplikatzen ditugu, eta jendearen eskura jartzen saiatzen gara, modurik entretenigarrienean eta erakargarrienean.
- ✓ *Kosmopolita.* Globalak gara. Balioa eranstean dutenak erakartzen ditugu, eta haiekin batera egiten dugu lan, dauden lekuan daudela ere.

GOBERNU SISTEMA KORPORATIBOA

1) Taldearen eta sozietateen Zuzendaritza Taldea

EiTBren zuzendari nagusia

EiTB sortzeko legea betez, Eusko Legebiltzarrak hautatzen du gehiengo absolutuz, Jaurlaritza-ren proposamenez, lau urterako.

EiTB taldeko Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendari nagusia

Estrategia Taldeko zuzendaria

ETBren zuzendaria

Irratiko zuzendari-koordinatzailea

Ustiaketa eta Ingeniaritza zuzendaria

Gizarte Harremanetarako zuzendaria

Sozietateetako negozio-unitateen zuzendaritza-batzordeak

Negozio-unitate bakoitzeko zuzendariek osatzen dute.

Estrategia Taldea eta EITBNET

*Estrategia Taldeko zuzendaria

Talentu zuzendaria

Konpromiso zuzendaria

Bultzada zuzendaria

Aitzindaritza zuzendaria

Garapen zuzendaria

Lidergo zuzendaria

EITBNETen zuzendaria

Euskal Telebista

*ETBren zuzendaria

*Esplotazio eta Ingeniaritza zuzendaria

*Gizarte-harremanetarako zuzendaria

Albistegietako zuzendaria

Programa eta programazio zuzendaria

Produkzioko eta Miramongo egoitzako zuzendaria

Zuzendariorde artistikoa

Programen zuzendariordea

Miramongo egoitzako zuzendariordea

Irratia

*Irratiko zuzendari-koordinatzailea

Euskadi Irratiko, Gazteako eta

EiTB Musikako zuzendaria

Radio Euskadiko zuzendaria

Radio Vitoriako zuzendaria

(* Zuzendaritza Batzordeko kideak dira

Negozio-unitateen kudeaketa-taldea

Negozio-unitate bakoitzeko kudeatzaileek osatzen dute, bakoitzaren barne-antolaketa-aren araberak.

2) Erakundeko eta haren sozietateetako gobernu-organoak

Erakunde publikoak gobernu-organo hauek ditu:

Administrazio Kontseilua

Eusko Legebiltzarrak izendatutako 19 kidek osatzen dute, eta emandako botoen bi herenen baba jaso behar dute. Legebiltzarreko legegintzaldia hasten denean izendatzen dituzte.

Kide horietatik 15, Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoetako ordezkariak dira. Beste lau kideak elkarte hauen proposamenez izendatzen dira:

- Euskaltzaindia
- Eusko Ikaskuntza
- Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- EAEn ordezkariak duten sindikatuak
- EAeko kontsumitzaileen elkarteak

Memoria honen denboraldirako Administrazio Kontseilua 2006ko uztailaren 26an osatu zen, eta kide hauek ditu:

Jose Luis Lizundia Askondo (Euskaltzaindia)	Maribel Vaquero Escudero (EAJ-PNV)
Jose Antonio Rubalcaba Kintana (EAJ-PNV)	A. Alzola Mtnez. de Antoñana (EAJ-PNV)
J.J. Goirieta de Gandarias (Eusko Ikaskuntza)	Cristina Ruiz Bujedo (PP)
Edorta Arana Arrieta (EHAK)	Antonio Rivera Blanco (PSE)
Juan Ignacio Pérez Iglesias (EHU-UPV)	Onintza Lasa Arteaga (EA)
Koldo Mediavilla Amarika (EAJ-PNV)	Mikel Arana Etxezarreta (EB)
Raul Artza Vélez (UGT)	Maite Aranburu Olabarrieta (EHAK)
Jose Luis López García (PP)	Eduardo Mateo Santamaría (PSE)
Carlos Urquijo Valdivielso (PP)	Iñaki Dubreuil Txurruka (PSE)
Melchor Gil Llanos (PSE)	

Kontseiluko lehendakaria txandakatu egiten da, eta hiru hilean behin aldatu.

EiTB sortzeko legeak mugatu egiten ditu Administrazio Kontseiluaren berezko eskumenak. Oinarrizko gobernatze-ildoen arabera jarduten du, alor hauetan:

- Erakunde publikoaren jardura-plana. Programazioko oinarrizko printzipioak eta ildo orokorrak biltzen ditu, bai eta erakundeko sozietateen jardura-plana ere.
- Erakunde publikoaren plantilla eta haren sozietateena.
- Negoziazio kolektiborako irizpide orokorrak, eta erakundeko eta haren sozietateetako langileen ordainketa-erregimena onesten ditu.
- Erakunde publikoaren aurrekontua eta haren sozietateena.
- Alderdi politikoei eta gizarte-taldeei zuzendutako programazio-ehunekoak.
- Publizitatea emateko arauak.

Gobernu- eta kontrol-gaiei erantzuteko, batzorde hauek osatu dira Administrazio Kontseiluaren barruan:

- Publizitate batzordea
- Aurrekontuen batzordea
- Hauteskunde gaietarako batzordea
- Euskara batzordea
- EiTBren ebaluazio-epaimahairako ordezkariak

Administrazio Kontseiluak hilero egiten ditu bilerak. Gai-zerrenda eta dokumentazioa kontseiluak bilera egin aurreko astean bidaltzen dira.

Administrazio Kontseiluko kideek, haiek hala erabakita, gutxieneko ordainsari bat jasotzen dute bertako kide izateagatik, halako beste kontseilu batzuetan jasotzen denaren aldean oso txikia.

Zuzendari nagusia

Taldeko sozietate publikoen administratzaile bakarra da, hau da, Euskal Telebista, S.A., Eusko Irratia, S.A., Radio Vitoria, S.A. eta EITBNET, S.A. sozietateetakoak.

EiTB sortzeko legeak eskumen asko eman dizkio, erakundea eta haren mendeko sozietateak kudeatzeko.

Andoni Ortuzar Arruabarrena izan zen Eusko Legebiltzarrak izendatutako EiTbko lehenengo zuzendari nagusia. Sozietateen administratzaile bakar gisa jardun zuen 1999ko ekainaren 29tik 2008ko urtarrilaren 11ra; orduan utzi zuen kargua.

Gertakari garrantzitsu gisa, nabarmendu behar da Eusko Legebiltzarrak ezin izan zuela une horretan izendatu zuzendari nagusi berria, eta, sozietateak zuzendaririk gabe ez uztearren, kargua uztera zihoan administratzaileak administratzaile bakar bat izendatu zuela sozietate bakoitzean. Ordutik aurrera, administratzaile bakar hauek daude:

- *Bingen Zupiria Gorostidi*, ETBren zuzendaria, Euskal Telebista S.A.rako.
- *Julian Beloki Guerra*, Irratiko zuzendari-koordinatzailea, Eusko Irratia S.A.rako eta Radio Vitoria S.A.rako.
- *Juan Diego Casals*, EITBNETen zuzendaria, EITBNET S.A.rako.

Horretaz gain, EiTb erakunde publikoaren eremuan jarduteko botereak eskuordetu zizkion Juan Diego Casalsi, eta modu horretan, EiTbren Estrategia-taldeko zuzendari gisa zuen boterea handiagotu zion, erakunde publikoaren eta mendeko sozietate anonimoen gobernagarritasunera. Eskuordetu ezin diren funtzioak Eusko Jaurlaritzako arduradun nagusiak hartu zituen bere gain, horren mendekoa baita EiTb.

Konponbide juridiko sozietario horren bidez estali dira 2008ko urtarrilaren 11tik EiTbren eta haren sozietateen gobernu-behar guztiak, ardura handienarekin.

Sozietate filialek gobernu-organo hauek dituzte:

Batzar Nagusia, EiTbren zuzendari nagusia ordezkari, eta

Administratzaile bakarra.

3) Kudeaketa-sistema

a) Plangintza estrategikoa

2007an EiTb beste garai estrategiko bati eman zion hasiera, eta taldearen 2008-2011 aldirako Plan Estrategikoa egin zuen.

Plan estrategiko horretan zehaztu ziren EiTb taldearen 5 helburu estrategikoak:

1. *Informazioan lider izatea*. Informazioa eta gaurkotasuna eskaintzen Euskadiko talde nagusia izatea. Berezko estiloa duen eskaintza egitea, eta lehiak baino kalitate handiagokoa.
2. *Entretanimenduan erreferenteak izatea*. Euskarri guztietan eskaintza nabarmena egitea, ikuspegi multimedia izanik, eta berezko balioak eranstea: enpatia (emozioa), partaidetza, dibertigarria (hauslea), desberdina (errepikaezina) eta modernoa (berria).
3. *Marka-indarra*. EiTb marka herrialdeko garrantzitsuenetako bat bihurtzea. Markaren balioak helaraztea: irekia, dibertigarria, hurbilekoa, abangoardista eta kosmopolita.
4. *Euskadiko ikus-entzunezkoen sektorea babestea*. Enpresek dimentsioa irabaz dezaten laguntzea, eta merkatu-itunak eta -kuota garrantzitsuak lor ditzaten laguntzea. Talentu sortzailea eta sektoreko profesionalen gaitasun-curriculuma garatzeko politikak ezartzea.
5. *Merkatu berriak egitea*. Banaketa-plataforma berriei aplikatzeko, eta Interneteko euskarriari beste ikuspegi bat emateko.

Helburu horiek betetzeko, beste bost palanka bultzatzaile proposatu dira:

6. *Pertsonak*. Enpresa aldatzea, kudeatzaileak pertsonen lider izan daitezen, batez ere, lantaldeen funtzionamenduari dagokionez, eta barne-komunikazioko eta onarpenerako ikuspegi berriak sortzea.
7. *Sormena*. EiTbren produktuei eta euskarrii sormen- eta berrikuntza-metodologiak ezartzea, gure ikus-entzuleak ugaritzeko eta gure lehiakideetatik bereizteko.
8. *Euskara*. Euskararen kontsumo naturala sustatzeko informazio- eta entretenimendu- eskaintza zabala egitea. Haur eta gazteak aintzat hartzea, xede-talde elebidun gisa, eta kontsumitzeko errazak diren formatu berritzaileak eskaintzea.
9. *Teknologia*. Gure euskarrii ekoizpen digitaleko sistemek eskaintzen duten lehia-abantaila aplikatzea, eta beste produkzio-estandar batzuk bilatzea.
10. *Antolaketa*. Antolaketa-ereduan sormen- eta xumetasun-erronkak eta balio kudeaketa-rako erronka aplikatzea, eta erabakiak hartzeko esparru dinamiko bihurtzea estrategia, gure ikuspegiaren helburua lortzeko.

Lau urteko plan hori proiektu estrategikoak hedatuta kudeatzen da. Proiektu horien jabe dira EiTbko eta haren sozietateetako zuzendaritza-taldeko kideak.

Urtero ebaluatzen da emaitza, eta eguneratzen dira horren ondorio diren proiektuak.

b) Programa-kontratua

Gaur egun, EiTb indarrean du 2007-2010eko Programa-kontratua. Eusko Jaurlaritzaren eta EiTbren arteko akordio bat da, zinetan ezartzen diren bi aldeek hartu dituzten konpromisoak.

EiTbren esku utzi den zerbitzu publikoaren zeregina jasotzen da Programa-kontratuan. Zeregin horretarako finantzaketa proportzionatua ezarri da, Europako Batasunak ezarritako ildoak bezelaz.

Zerbitzu publikoa izateko helburuak honela labur daitezke:

- Kate orokorrak eta gaikakoak modu orekatuan ekoiztea. Programazioak era askotakoa eta sinesgarria izan behar du, eta komunikazio-sistema guztirako *ereduzko azpi-sistema* izan behar du.
- Nazioartean ere eman behar dira saioak, euskal kultura eta errealitatea zabaltzeko, atzerrian bizi direnei arreta berezia jarritz.
- Ereku publikoari erantzun behar zaio: jarduera instituzionalari eta Legebiltzarrekoari, herritarren hezkuntzari, gizarte-arazoei, gizarte-zerbitzuei eta abar.
- Komunikabideen eskaintza orokorrean, euskarak presentzia handiagoa izan dezan bermatzen lagundu behar du.
- Euskal zinema eta ikus-entzunezkoen produkzioa babestu behar ditu.
- Euskadiko ikus-entzunezkoen sektorea indartzen lagundu behar du, sektore ekonomiko estrategikoa izan dadin.
- Aurrerapen teknologikoan parte hartu behar du, eta informazioaren gizartea sustatzea.

EiTbren eta haren sozietateen finantza-erregimenak izaera mistoa du. Programa-kontratuan ezarri da finantza-ekarpen publikoa zenbatekoa izango den. Era berean, balantze ekonomikoek ezin dutela defizitik eta zorpetzerik sortu ere ezarri da.

Berezko finantzaketa publizitate-salmentengatik sarreraren eta bestelako diru-sarreraren batzuen arabera da. Horrenbestez, finantzaketa misto hori oinarri hartuta ezartzen da urteko ustiaketa-aurrekontua; alabaina, gastuak ezin dira sekula sarrerak baino gehiago izan.

c) Negozio-planak

Taldeko sozietate bakoitzak negozio-plan bat du. EITB taldearen estrategiarekin bat datoz guztiak, eta urteko helburuak dituzte.

Negozio-planetan kudeaketa-eremu nagusiekin erlazionatutako helburuak garatzen dira. Ikus-entzule eta irudi helburuak, sarrera eta gastu helburuak, errendimendu operatiboko helburuak eta politika estrategikoekin erlazionatutako beste helburu batzuk dira adierazleen egituraren arrazoi.

Negozio-plana hedatzeko kudeatzaile bakoitzak bere *helburu-fitxa* du. Urtero berraztertzen eta ebaluatzen dira.

KONTROL-ORGANOAK

Aurrekontu-kontrola

EAEko Aurrekontu Orokorren Legearen bidez egiten da. Eusko Legebiltzarrak onesten du, EiTbren Administrazio Kontseiluak gaitzetsi ondoren.

Aurrekontu-orekaren printzipioa oinarri hartuta egiten dira aurrekontuak.

EiTB Kontrolatzeko Legebiltzarreko Batzordea

Legebiltzarreko batzordeak du EiTBren esku utzitako zerbitzu publikoko funtzioa gauzatzeko kontrol-eskumen osoa.

Segimendua eta kontrola, zuzendari nagusia bilerara agertu, eta legebiltzarkideek zuzendari nagusiak ahoz edo idatziz erantzuteko egiten dituzten galderen bidez egiten da.

EiTBk bere esku utzi den *zerbitzu publikoa gauzatzeari buruzko txostena* igortzen dio urtero Legebiltzarreko batzordeari. Era berean, Legebiltzarrean entregatzen diren edo Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren bidez jasotzen dituen segimendu-agiri guztiak ere jasotzen ditu batzorde horrek.

Administrazio Kontseilua

Gobernu-organoa denez, kontrol-funtzioak ditu, bereziki, kudeaketa ekonomikoari eta EiTB sortzeko legea iradoki zuten printzipioak defendatzeari dagozkionak.

Programa-kontratuari segimendua egiteko batzordea

Eusko Jaurlaritza da buru, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea; beste kide hauek ere baditu: Kultura sailburua, Kultura Zerbitzuetako zuzendaria, lehendakariordearen idazkari nagusia eta Ekonomia, Aurrekontu eta Ekonomia Kontrolerako sailburuordea. EiTBren aldetik, kide hauek osatzen dute: zuzendari nagusiak, Estrategia Taldeko zuzendariak, ETBko zuzendariak, Irratiko zuzendari-koordinatzaileak, Ustiaketa eta Ingeniaritza zuzendariak eta Gi-zarte Harremanetarako zuzendariak.

Onetsitako prozedurari jarraiki, Programa Kontratuan adostutako konpromisoak bete diren ebaluatzen du batzorde honek.

Dokumentu horri segimendua egiteko, lehenengo seihilekoaren txostena eta emaitzen urteko txostena egiten ditu EiTBk. Behar besteko denboraz bidaltzen zaizkie txostenak batzordekide guztiei, azter ditzaten.

Segimendurako eta Emaitzen Ebaluaziorako Batzordeak bilerak egiten ditu, urtero.

Memoria hau idatzi dugunean, egin gabe dago 2008ko azken emaitzen ebaluazioa. Alabaina, al-dekoak izan dira Programa Kontratu ebaluatzeko egin diren txosten guztiak (2003tik eginda-koak).

Negoiazio kolektiboaren gaineko kontrola

Hitzarmen kolektiboak Eusko Jaurlaritzaren negoziazio-arauak errespetatuta negoziatzen dira. Zuzendaritzaren eta sindikatuen arteko aurreakordioa burutu ondoren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailera bidaltzen da Ekonomia Kontrolerako eta Negoiazio Kolektiborako Bulegoen zuzendaritzek kontrola dezaten.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa ikuskatzen ditu organo horrek, bai eta funts publikoak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak ere.

Eusko Legebiltzarrak eskuordetu dizkio zeregin horiek epaitegiari. Askatasun osoz jarduten du, eta diru publikoa legez, erregulartasunez eta eraginkortasunez erabili eta kudeatu den adierazi behar du.

Besteak beste, EiTB ere ikuskatzen du. Bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen Legea bete behar dela azpimarratzen du, lege horrek arautzen baitu obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratazea.

2007an eta 2008an, bi ikuskapen egin ditu: batetik, 2006 eta 2007 ekitaldietako obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzekeo prozesuak ikuskatu ditu, eta, bestetik, epe bereko Euskal Telebista SAko langileen kontratazioak ikuskatu ditu.

Egiten dituen txostenak Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrari eta Estatutako Kontuen Epaitegiari bidaltzen dizkio epaitegiak. Txosten ofizialak publikoak dira, eta eskuragarri daude erakunde horren webgunean: www.tvcp.org

Urteko kontuen ikuskapenak

PricewaterhouseCoopers enpresak egin ditu azken ekitaldietan EiTBren urteko kontuen ikuskapenak. Batzar Nagusiak izendatu zuen zeregin horretarako.

Memoria hau idatzi dugunean, egin gabe dago oraindik 2008ko kontuen ikuskapen-txostena. Dena den, esan behar dugu gaur egungo zuzendaritza-taldearekin (1999tik) erlazionatutako EiTB taldeko kudeaketa-sozietateen kontu-ikuskaritzei buruzko txostenetan ez dela salbuespenik izan.

Enpresa-kudeaketa eta lortutako emaitzen EFQM ebaluazioa

EiTB taldeko zuzendaritza-taldearen bikaintasun-ikuspegiarekin bat egiteko, 2004tik hiru kanpo-ebaluazio egin dira. Barne-ikuspegia Euskadiko eta nazioarteko erakundeen zuzendaritza-taldearekin egiaztatzekeo balio izan dute. Urte hauetan zehar, EiTBk indartu egin ditu Enpresa Bikaintasunaren funtsezko zortzi kontzeptuak: Emaitzetara bideratzea – Bezeroarengana bideratzea – Lidergoa eta koherentzia – Prozesu- eta ekintza-kudeaketa – Pertsonak garatzea eta inplikatzeko – Etengabeko ikaste-, berritze- eta hobetze-prozesua – Aliantzak garatzea – Erakundeak gizarte-erantzukizuna izatea.

Eusko Jaurlaritzak eta Iberoamerikako Estaturu eta Gobernuburu egindako Goi Bileran hau onartu diote EiTB taldeari: *Zilarrezko Q*-a kudeaketa-bikaintasunagatik (2004), *Kalitatearen Iberoamerikako Saria* (2006) eta *Urrezko Q*-a kudeaketa-bikaintasunagatik (2007).

Kudeaketa-sistemak ikuskatzea

Osasun eta Lan Prebentzioko sistemari dagokionez, barne- eta kanpo-ikuskapenak egiten ditu urtero EiTBk. Orokorrak izaten dira, hau da, EiTB taldeko sozietate guztietan egiten dira. AENORek ziurtatzen ditu, OHSAS 18000 nazioarteko arauaren bidez. EiTBk indarrean dauden balioko legeak betetzen dituela bermatzen du, eta kudeaketa-sistema zorrotzagoa ezartzen du, borondatez, taldearen instalazioetan lan egiten duten langile azpikontratatuaren segurtasuna babesteko.

Horretaz gain, ISO 9001ekin ziurtatu du EiTBk EiTB taldearen kudeaketa-sistema; horrenbestez, erakunde publikoko langile guztiak eta langileek kudeatzen dituzten sistemak, kalitate-parametro horien pean daude. ETB SARI dagokionez, kalitate-sistemak Donostiako ekoizpen-etxean zein unitate mugigarrien bidez egindako programak estaltzen ditu.

EiTBk negozio-unitate guztietako hogei barne-profesional baino gehiagoko ikuskari-taldea du. Guztiek beharrezko prestakuntza izan dute, kudeaketako barne-ikuskapenak egiteko, ISO 9000 eta OHSAS 18000 arauak betez, eta ikuskapenak egiten hainbat urtetako esperientzia egiaztatua dute. Emaitza onak izan dituzte AENORen kanpo-ikuskapenek izandako emaitzekin alderatzen baditugu.

AENORek 2007an eta 2008an egindako ikuskapen-txosten guztiak kontuan hartuz, EiTBk ezadostasun bakarra izan zuen, eta berehala zuzendu zen. Horrenbestez, aplikatzen diren kudeaketa-sistemak sendoak dira eta oinarrituta daude.

Bateraezintasunak

EiTB sortzeko legeak adierazten du zer bateraezintasun dituzten erakunde publikoko eta haren mendeko sozietateetako zuzendariak. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzaren Bateraezintasunen Legea ere bete behar dute gobernu-organoek.

Horrenbestez, arau horiek arduraz beteta izendatzen dira zuzendariak eta gobernu-organoak.

ZERBITZU PUBLIKOA ETA AUTORREGULAZIOA

EiTBk ematen duen zerbitzu publikoaren xedea da herritarrei programazio orekatua eskaintzea, kultura aniztasuna sustatzea, pluralismoa bermatzea, eta modu demokratikoan eta doakoan kalitatezko informazioa eta entretenimendua ematea.

EiTB sortzeko legeak printzipio hauek jasotzen ditu EiTBren komunikabideen jarduerak emateko:

- a) Emandako informazioak objektiboa, egiazkoa eta inpartziala izan behar du.
- b) Informazioa eta iritzia desberdindu eta bereizi egin behar dira, eta iritzia emateko, identifikatu egin behar du iritzi-emaileak. Merkataritza-publizitateak ere tratamendu bera eduki behar du, hau da, desberdindu eta bereizi egin behar da.
- c) Berdintasun-printzipioa, aniztasun politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta linguistikoa errespetatu egin behar dira.
- d) Konstituzioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak onartzen dituzten bizikidetzako gizalegezko balioak defendatu eta sustatu behar dira, interes orokorraren alde.
- e) Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak onartutako eskubide guztiak errespetatu behar dira.
- f) Ohorea, pertsonen ospea, eta, bereziki, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatu behar dira.
- g) Gazteak eta haurrak babestu eta lagundu behar dira.
- h) Euskal kultura eta euskara sustatu behar dira, eta euskararen erabileraren ondorioetarako oinarritzko programazio-printzipioak ezarri behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskaintza orokorra kontuan hartuta, euskarazko irrati eta telebistako emankizunak orekatu beharra dagoela kontuan hartuta.

Zerbitzu publikoko printzipio horiek eta enpresa-kudeaketarekin erlazionatutako beste batzuk garatzeko, EiTBk barne- eta kanpo-konpromisoak hartu ditu, autorregulazio zeregina bete dezaten. Zehazki:

Informazio-eskaintzaren eremuan:

1. EiTBren arau editorialak.

EiTBren Kontseilu Editorialak 2008an taldearen albistegi-zerbitzuetarako onetsitako dokumentua da. Bi atal ditu:

- a) *EiTBren arau editorialak*: kazetaritza-etika, horren kokapena, autorregulazioa eta enpresa publikoan nola aplikatu, giza eskubideen gizartea eta komunikabideek duten gizarte-erantzukizuna, eta taldearen arau profesionalak jaso dira dokumentu horretan.
- b) *Proposamen profesionalak, giza eskubideen, biktimen eta bakearen eremuan*: alor horretako informazioari zer tratamendu eman jakiteko oinarriak jaso dira.

2. Giza eskubideak, biktimei laguntzea eta bakea

2007ko maiatzean Eusko Jaurlaritzaren eta EiTBren Zuzendaritza Nagusiaren artean sinatutako hitzarmena da. Urtero jarduera-plan bat egingo da, giza eskubideak hedatzeko, terrorismoagatik biktimei laguntzeko eta bakearen kultura sustatzeko EiTBren komunikabideek egin dituzten ekimenak biltzeko.

2008ko jarduera-plana aurkeztu eta erakunde eskumendun guztiek onetsi zuten, eta, era berean, 2009an garatu beharreko plana ere onetsi zen.

3. **Pluraltasun politikoa islatzea**

EiTBk, hilerio, alderdi politikoei eskainitako informazio-tratamenduari buruzko txostena bidaltzen dio Eusko Legebiltzarrari. Txosten horretan zehazten da zenbat denbora eskaini zaion irratian eta telebistan izaera politikoko informazioari, eta alderdi politiko-etako buruei zer eta zenbat elkarrizketa egin zaizkien ere adierazten da. Orain arte, alderdi politikoetako ordezkari guztiek onartu izan dute beti txosten hori.

Publizitatearen eremuan:

4. **Autocontrol elkarteak.**

EiTB taldea Autocontrol elkarteko kidea da. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak da hori, eta publizitatearen eremuan autorregulaziorako sistema kudeatzea du helburu. Publizitate-agentziek, iragarleek eta komunikabideek osatzen dute Autocontrol elkarteak. Erakunde horretan aztertzen dira komunikabideetan publizitatea emateari buruzko kontsultak eta txostenak, eta alor horretako eztabaidak ere hor konpontzen dira. Hala, publizitatea aplikagarri zaion arautegia betez ematen dela bermatzen du. Autocontrolek publizitatea arduratsua izan dadin zaintzen du, bai edukiari dagokionez, bai hedapenari dagokionez.

5. **Publizitatea arautzeko EiTBren arautegia.**

1992an, Administrazio Kontseiluak *EiTBren komunikabideetan publizitatea ematea erregulatzeko arauak* onetsi zituen.

Arau horien bidez, indarrean dagoen legeria jasotzeaz gain, publizitatea kontratatzerakoan EiTB sortzeko legea iradoki zuten printzipioak aplikatzeko konpromisoa hartu da, eta kontsumitzailearekin eta haurrekin arduratsua eta konprometituagoa izango den autorregulazioaren aldeko apustua egin da. Arautegi hau betetzeko EiTBk dagozkion barne prozedurak finkatuak ditu.

Genero-tratamenduaren eremuan:

6. **Emakumearen irudia modu diskriminatzailean ez erabiltzeko hitzarmena.**

2008an, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko sail arteko talde teknikoak publizitatearekin lotutako ekintza hori sartu zuen 2008ko *Berdintasun Planaren* barnean. EiTBk, hitzarmena beteko dela bermatzeko, publizitate-eduki guztiak ikusiko ditu eman aurretik. Emakumearen aurkako indarkeria justifikatzen, ezerezten edo bultzatzen duten edukiak ere kontrolatuko direla jaso da hitzarmenean.

7. **EiTBren eta Emakunderen arteko hitzarmena**

EiTBk parte hartzen du Emakunderen Berdintasun Planean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren bidez. Plan horrek urtero jarduera eta ekimen batzuk egin beharra eta horien ebaluazioa eta segimendua egin beharra dakar. EiTBk bete ditu Emakunderen plan horretako 2007rako zein 2008rako hartutako konpromisoak.

Euskararen eremuan:

8. **Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmena**

2003an sinatu zen Euskaltzaindiaren eta EiTBren arteko lankidetzaren sustatzeko hitzarmena, EiTB baita euskara hedatzeko funtsezko erakundeetako bat; beraz 2007an berritu da. EiTBk bere komunikabideetan euskara zuzen erabiltzeko ardura du, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak betez, eta Euskaltzaindiak aholkatu eta bideratu egiten du EiTB, euskara ondo erabil dezan. 2007 eta 2008an zehar honako gai hauek landu dira: kirol-probak euskaraz izendatzeko darabilgun sistemari buruzko irizpena, eguraldi-mapetan jartzen diren hondartzen izenak, eta elizen eta ermiten adokazioak.

Haurrak babestearen eremuan:

9. Ministerio arteko hitzarmena, hurrei eta gazteei zuzendutako programazio-erakundearen autokontrolerako.

1993ko martxoaren 26an, ETBk, estatuko eta beste autonomia erkidego batzuetako beste telebista-kate batzuekin batera, Hezkuntza eta Zientzien Ministerioarekin eduki jakin batzuk autorregulatzeko hitzarmena sinatu zuen, hurrek eta gazteak babesteko. ETBk printzipio hauek bere programazioko lerro nagusietan txertatu ditu. Espainiako Gobernuarengandik ez du ETBk inolako ez betetzearen abisorik jaso urteotan.

10. Haurrentzako euskarazko eskaintza zabala egiteko konpromisoa.

EiTBk euskararen normalizazioa sustatzeko konpromisoa du, batez ere haurren artean. Horretarako, ETB1en, tarterik handiena haur-erakundeentzako jarri du. 2008tik haurrentzako saio gehiago ezarri ditu, ETB3n tarte gehiago eman dizkiolako.

1999tik Betizu haurrentzako kanala ekoizten du ETBk (lehen Superbat). Euskaltelek zabalitzen du, kable bidez. Hala, EAEko haurrentzako euskarazko eskaintza zabala du ETBk.

Konpromiso hori Internetera ere hedatu da, haurrentzako eduki asko eskaintzen baitira www.eitb.com/betizu atariaren bidez.

Horietaz gain, EiTBk haurren Betizu fideltasun-kluba ere kudeatzen du. 80.000 kide baino gehiago ditu. Kideei aldizkari espezializatua, *merchandising*-materiala, dendetarako beherapen-txartelak eta denbora-pasarako eskaintzak igortzen dizkie, eta entretenimendurako kanal bat ere eskaintzen die Internet bidez. Betizu Jai handia ere egiten dute urtero.

gizarte-programei eta talde minoritarioei sarbidea ematearekin erlazionatutako eremua:

11. Erljio-sinesmenez arduratzea.

EAEen gehiengo duen erlijio katolikoaz bestelako sinesmenez eta erlijioez arduratzeko, EiTBren komunikabideek gutxiengoan dauden beste sinesmen batzuetako programa erlijiosoak eskaintzen dituzte.

12. Legebiltzarreko jardueraz arduratzea.

ETBk Legebiltzarreko jarduerari buruzko saioa ematen du, astean behin. *Palabra de Ley* izeneko saioak talde guztien onarpena jaso du urteetan zehar, era askotako edukia jorratzen dituelako.

ETBk, noizean behin, Legebiltzarreko eztabaidak ematen ditu oso-osorik, herritarren interesekoak direla iritziz gero.

13. Euskal kultura tradizionalaz arduratzea.

EiTBk arreta berezia jartzen dio euskal kultura tradizionalari, eta masen ikusentzunezko komunikabideetan agerrarazten du. Euskal kultura tradizionala bermatzen du horrela, errentagarria ez denez bestela komunikabideetan agertu ere egingo ez litzaitekeen kultura, alegia.

Adibidez, taldeko komunikabideetan, hauek ditugu:

- *Bertsolaritza*. Bertsozale Elkartearekin hitzarmenak egiten dira, Euskadin izandako jaialdiak eman eta horiei segimendua egiteko. Saiorik ezagunena ETB1eko *Hitzetik Hortzera* da, baina Euskadi Irratian eta www.eitb.com/kultura atarian ere egiten da alor horretako eskaintza.
- *Pilota*. Modu berean, eta kirol tradizionala zaintzeko, pilota-partidak antolatzen dituzten erakundeekin ere egiten dira hitzarmenak, eskuzko, zestako, palako edo erre-monteko pilota-partidak eta txapelketak emateko. Horrelako gertaerentzako ETBk egiten duen bezalako eskaintza zabalik ez dago haren hedapen-eremuan. Maila horretan, errentagarria ez delako beste inork egiten ez duen programazio-eskaintza du. Alde horretatik, 1999tik Euskadi Irratia Saria ematen dio EiTBk eskuz binakako txapelketako pilotaririk onenari. Bai EAEko, bai Nafarroako eta bai Errioxako komunikabideetan ere oihartzun handia izaten du sari horrek.

- *Estropadak.* EiTBk berta-bertatik jarraitzen du estropaden denboraldia. Alor horretako norgehiagoka guztiak estaltzen ditu: bai Traineruen Liga, bai denboraldiko gainerako hitzordu guztiak ere, hala nola Kontxako Bandera eta Euskadiko Txapelketa.
- *Herri-kirolak.* Euskadin egiten diren herri-kirol lehiaketak eta ikuskizunak ematen ditu. Alor honetan ere EiTB da horrelako ikuskizunak ematen dituen komunikabide bakarra.

14. EiTB Kultura.

2007an EiTB Kultura katea sortu zen, EiTB taldeko zeharkako edukiak emateko. Bi helburu ditu: a) EiTB taldeko telebistetan, irratieta eta Interneten kultura-informazioa behar bezala ematea, eta b) kulturaren sustatzaile aktiboa izatea. 2008tik arduradun bat du, EiTBko komunikabideak koordinatzeko, kultura-eragileekin harremanetan jartzeko eta kulturarekin lotutako zerbitzu publikoko proposamenak egiteko.

Gizabanakoaren oinarritzko eskubideak zaintzearen eremuan:

15. Oinarritzko eskubideez arduratzea.

Gizabanakoaren eskubideekin (ohorea, irudia eta intimitatea) erlacionatutako gorabeherak prebenitzeko eta haietaz arduratzeko egin den lanagatik, azken bost urteetan ez da gai horien inguruko arazorik izan EiTB taldeko komunikabideetan.

Enpleguaren, lanpostuak betetzearen eta laneko segurtasunaren eremuan:

16. EiTBn eta haren sozietateetan langile finko izateko arauak.

Administrazio Kontseiluak onartu zituen 1987ko urriaren 6an, eta eguneratu egin ziren 2003ko abenduaren 23an. Langile finko izateko sistema arautzen dute, publizitate-, gardentasun- eta aukera-berdintasuneko irizpideak kontuan hartuta. Hautaketa-prozesu guztietan kontrol-organismoek, Administrazio Kontseiluko ordezkariak eta enpresa-batzordeetako ordezkariak hartzen dute parte.

17. Behin-behineko langileak hautatzeko prozedura.

EiTBren Zuzendaritza Kontseiluak onartu zuen 2002ko urtarrilaren 29an. Behin-behineko lan-kontratupeko langileak hartzeko eta hautatzeko irizpideak eta iturriak arautzen ditu. Prozesu hori hobetzeko, enpresa-batzordeetako ordezkariekin hitzarmena egin da, haien parte-hartzea eta lankidetzaz ziurtatzeko.

18. Lan prebentziorako eta osasunerako sistema, OHSAS 18000 araupean.

2005ean EiTB taldeak OHSAS 18000 arauaren bidez ziurtatu zituen bere sozietate guztiak. Arau horrek lan-prebentziorako eta osasunerako kudeaketa-sistema bermatzen du. Indarrean dauden eta aplikatzen diren alor horretako legeak zehatz beteta baino eskakizun gehiago eta exijentzia-maila handiagoa du. Urtean bitan ikuskatzen dira, barne- eta kanpo-ikuskaritzen (AENOR) bidez. 2008ko ikuskatze prozesuetan EiTBk 18001:2007 araua aplikatu du, berau 2009 arte derrigorrezkoa ez izan arren.

Minusbaliotasunen bat duten herritarrentzako irisgarritasunaren eremuan:

19. Irisgarritasuna.

2004an hitzarmen bat egin zen FORTA eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren artean, gorren eta entzuteko arazoren bat duten pertsonen legezko helburuei eraginkortasunez erantzuteko tresna bat izateko. Azpтитuluak jartzeko zentro bat sortu zen.

EiTBk, 2005ean, hitzarmena sinatu du IGONekin, azpтитuluak dituzten programak eskaintzeko, gorrek informazio-dukien eta entretenimenduzko saioetako dukien berri izan dezaten. Gaur egun, film eta telebista-serie asko ematen ditu ETBk azpтитuluekin, bai eta Teleberri 2 eguneroko albistegia ere.

2008an, Mundovisión MGI enpresarekin entretenimenduzko programa batzuei azpтитuluak jartzea adostu zen, EiTBren teletestuaren bidez jarraipena egiteko. 2008an azpi-

tituludun telebistako programazio orduak bultzada handia izan du, 571 ordutatik (2007) 948 ordutara (2008) pasatuz.

Ingurumenaren eremuan:

20. Stop CO2 Euskadi.

EiTBk *Stop Co2 Euskadi* ekimenaren helburuekin bat datorrela adierazteko hitzarmena sinatu zuen 2009ko urtarrilaren 13an. Ekimen hori IHOBek eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak kudeatzen dute. Helburu nagusia klima-aldaketaren kontra borrokatzea da, eta horretarako enpresen, administrazio publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztien jarduerak eta konpromisoak biltzea. Ekimen horren bidez, berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko ekintzak ezarri behar dira enpresan.

3. atala:

gizarte-erantzukizuneko eredua

EiTBren Gizarte-erantzukizuna eta EiTBren plan estrategikoa

2007ko azaroan egin zen EFQMren azkeneko kanpo-ebaluazioan, ideiei, tresnei eta jardunbide onei buruzko atalean, gomendio hau egin zuten ebaluatzaileek: *“zerbitzu publikoa emateko izaera eta gizartean eragiteko gaitasuna duenez... onuragarria litzateke Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren arloan garatzea EiTBk bere ikuspuntua, euskal gizartean erreferente bihurtu dadin”.*

EiTBren zuzendaritzak ebaluatzaileek egindako gomendio hori onartu eta proiektu estrategiko gisa hartu zuen, gizartearekiko harremana sendotzeko eta EiTB marka gobernu arduratsuaren gizarte-erreferentzia bihurtzeko.

Hala, EiTB taldearen prozesuek eta enpresa-jarduerak herritarrengan konfiantza sortzea nahi dugu, herritarra gure komunikabideen erabiltzaile izan edo ez.

Horregatik, EGen esparruan, ondoren azaldu bezala, gizarte-harremanetarako beste ikuspegi bat proposatu dugu, *stakeholderrekin* parte hartzeko eta komunikatzeko kanal berriak sortzeko.

Enpresaren gizarte-erantzukizunak (EGE) ezaugarri hauek eduki behar lituzke:

1. ... **EiTBren estrategiarekin bat etorri behar du.** EiTBk gizarteari laguntzeko duen balioari buruzko diskurtsoa oraindik ere gehiago azaldu eta indartu behar du.
2. ... EiTB markaren nortasuna diren **funtszko 5 balioak erakutsi behar ditu:** *hurbi-lekoa, irekia, dibertigarria, abangoardista eta kosmopolita.*
3. ... **kolaboratzailea izan behar du...** *stakeholderrekin eta beste partner batzuekin egindako hitzarmenetan oinarritzen dena. EGen strategiak gizartearekin harremanetan egoteko beste bide batzuk zabaltzen dizkigu.*

EiTBren Gizarte-erantzukizunaren dimentsioak

Hasieratik, EiTBk zerbitzu publikoa emateko eta gizartearen eskariei erantzuteko bokazio argia izan du. Zuzendaritza-talde guztiek hauteman dute errealitate hori.


2008an egin dugun hausnarketak beste urrats bat egiten utzi digu, eta aurretik dauden ekimen guztiak integratzen dituen, haiei zentzia ematen dien eta beste ekintza-ildo batzuk sustatzen dituen plan bat egin dugu.

Erakundearen atal batzuetan eztaba da luzea izan ondoren, EiTB taldeak sei dimentsio identifikatu ditu Gizarte Erantzukizun Korporatiboarako:

1. dimentsioa: herritarrenganako kidesuna sortzea. Gizarte-taldeek dituzten komunikazio-beharrei erantzuna emango dien proiektuen bidez.

2. dimentsioa: munduan Euskadiren irudia zabaltzea. Euskadik atzerrian irudi ona izaten laguntzea du helburu, arrazoi askorengatik, nazioarteko sareekin geroz eta euskaldun gehiago erlazionatzen den une honetan. Dimentsio hau 2008ko ekainaren 5ean World Cafén egindako eskaera baten ondoriozko ekarpena da. Egun hartan, ehun bat lagunek ez-

Enpresaren Gizarte-erantzukizunaren dimentsioak



tabaidatu zuten EiTbren EGE n orientazioari buruz.

3. dimentsioa: euskararen aldeko konpromisoa. Euskarazko komunikazioaren aldeko estimua eta emozio positiboak sortzea da helburua, eta euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea.

4. dimentsioa: enpresa-iraunkortasuna. Gizarteari balioa erantsiko dion enpresa-kudeaketa egitea da helburua, gizarteak ordaintzen baitu enpresaren jarduera, zergen bidez. Erreferentziarako enpresa publikoa kudeatzeko eredua garatu nahi da, eraginkortasun irizpideak oinarri hartuta, emaitza onak izan ditzan.

5. dimentsioa: ingurumen-iraunkortasuna. Baliabideak modu arduratsuan erabiltzeko politikak sustatzea da helburua, ingurumenari egindako kaltea gutxitu eta gizarte-sensibilizazioa susta dadin, bai barnerantz, bai kanporantz.

6. dimentsioa: lan- eta gizarte-iraunkortasuna. Langileekin eta ikasten ari diren gazteekin arduratsu izateko politikak sustatzea da helburua.

2008tik aurrera, EiTbK sei dimentsio horiek kontuan hartuta garatu du Gizarte Erantzukizun Korporatiboko ikuspegia, dimentsio horietan ezarritako helburuekin bat egingo duten proiektuak eta ekintza-ildoak identifikatuz. Ikuspuntu hori onartu du EiTbren Zuzendaritza Batzordeak.

EGE kudeatzea

Enpresaren Gizarte-erantzukizunari (EGE) aplikatutako kudeaketak ikuspuntu hau du: taldeko prozesu guztien zeharkako errealitate gisa onartu da, eta, beraz, sozietate arteko talde bat identifikatu da hori garatzeko.

Hau da talde arduraduna:

EGEko koordinatzailea: Estrategia-Bultzada taldeko zuzendaria.

1. dimentsioko koordinatzailea: Gizarte Harremanetarako zuzendaria.

2. dimentsioko koordinatzailea: Estrategia Taldeko zuzendaria.

3. dimentsioko koordinatzailea: Euskadi Irratiko zuzendaria.

4. dimentsioko koordinatzailea: Adierazleak adierazle-sistemako kudeatzailea.

5. dimentsioko koordinatzailea: Kalitateko eta Bai, Esan! Kalitatea eta Arretako kudeatzaileak.

6. dimentsioko koordinatzailea: lan-hitzarmenetako kudeatzailea.

Dimentsio-koordinatzaile bakoitzak laguntzaile-sare propioa ezarri du; haiekin egiten du lan, eta haiengandik jasotzen du laguntza, ekintza-ildoak eta proiektuak garatzeko.

Hortaz, sarean egindako sistema gisa egitea proposatu dugu Gizarte Erantzukizuneko barne-kudeaketa, hau da, hogeita hamar kolaboratzaile baino gehiagorekin; kolaboratzaileek dituzten enpresa-helburuei kalterik egin gabe, balioa sortzen laguntzen dute, EGEko proiektuak ere garatuz.

EiTb taldean aplikatzen den beste kudeaketa-sistema guztiek bezala, EGEn ikuspuntua, ekintza-plana eta aginte-taldea ditu.

Stakeholderrekin, harremanak beste era batera bideratzea

2008ko udaberrian eguneratu genuen *stakeholderren* (interes-taldeak) gizarte-taldea, eta EiTbren Gizarte Erantzukizun Korporatiboko lehenengo World Cafen parte hartzera gonbidatu genuen.

World Caferen metodologia erabili genuen interes-taldeekin elkarrizketa-mekanismoak ezartzeko. EGEn dimentsioei buruz hitz egiteko, eta une bakoitzean non dauden, zer behar eta lehenetasun dituzten atzemateko aukera ematen digu horrek. Bigarren ekitaldia 2009ko maiatzean egiteko konpromisoa hartu dugu, 2009-2010 biurteko ekintza-ildoak proposatzear daudenean.

Horrenbestez, *stakeholder*rei ekintza-ildoak hautatzen parte hartzeko gaitasuna emateko konpromisoa hartu du EiTb taldeak. Horixe izango da etorkizunean egingo ditugun topaketen funtsezko helburua. EiTbren berezko ezaugarria izango da, hau da, EiTbk *stakeholder*rekin hartutako konpromisoa.

Hala, EiTbren hiru balio sustatu nahi ditugu:

- *Irekiak*: euskal gizarteko pertsonengana modu erakargarrian iristea, gure komunikabideen erabiltzaile diren edo ez kontuan hartu gabe.
- *Hurbilekoak*: hor gaude, eskura gaude. Arreta osoa jartzen diegu gurekin harremanetan jartzen direnei.
- *Kosmopolitak*: globalak gara. Balio eranstean dutenak erakartzen ditugu eta haiekin batera egiten dugulan, dauden lekuan daudela ere.

World Caferen deialdian *stakeholder*ren gizarte-taldea eguneratzeko irizpideak interes-taldeetako arduradun eta/edo ordezkarien erlazioari erantzuten dio, 26. orrialdeko *stakeholder*ren taldekatzearen arabera.

EGEko 6 dimentsioetan abian jarri diren proiektuei dagokienez, EiTbren arduradunek harreman ona dute hartzaile diren interes-taldeekin, eta harreman-esparru horrek *partner*ekin, hornitzaileekin eta bezeroekin izaten diren harremanek duten bizitasun bera dute.

	Stakeholderak hedatzea EGEko dimentsioa					
	Dimentsioa					
	1	2	3	4	5	6
Komunitatea						
Bezeroak						
Hornitzaileak						
Langileak						
Akziodunak						
Administrazioa						

EGEn komunikazioa

Enpresaren Gizarte-erantzukizunaren (EGE) berri emateko, EiTbren Gizarte-erantzukizunaren memoria egiteko konpromisoa hartu dugu bi urtean behin, eta memoria hau da agiri horren lehenengo edizioa.

EiTb talde osoa (erakunde publikoa eta taldearen sozietate nagusiak) kontuan hartuta egin dugu memoria, eta 2007-2008 aldiko ekintzak hartu ditugu erreferentzia gisa. Memoriak gardentasun printzipioari erantzuten dio, eta memoria idatzi duen taldeak garrantzitsutzat jotako guztia sartu da eduki nagusi gisa, hala nola: a) enpresaren profila eta gobernatze arduratsua, b) EGEN kudeaketa-sistema, eta ikuspuntu horretatik erakundea nola ulertzen den, c) 2007/2008 biurtekoan, EGEko proiektuak nola garatu diren, eta d) GRIko *G3 guideline*ek behar duen informazio osagarria.

Memoria kanpo-erakunde eskumendunek egiazta dezaten utziko du EiTbk.

Interes-taldeetako ordezkariari banatuko die, EiTb taldeko komunikabideetan argitaratuko da, eta www.eitb.com webgunean ere eskuragarri egongo da.

EGEri buruzko edozein galdera egiteko, bi bide hauek jarri ditugu jendearen eskura:

- Arreta-telefonoa: (+34) 94 656 3122
- Posta elektronikoa: info@eitb.com

Interes-taldeak, dimentsioka taldekatuak

Gizartea		
1. Gizartea	-Gaixoen elkarteak. - 0-11 urte arteko haurrak eta horien familiak. -Ikastetxeak. -Kirola + kultura + ekonomia + musika-eremuak. - Unibertsitateko ikasleak. - Unibertsitatea.	-Gizartea oro har. -Eusko Legebiltzarra. -Terrorismoaren biktimak. -Administrazioa. -Gorak
2. Euskadi munduan	-Euskal diaspora. -Atzerrian dauden Euskadiko profesionalak	-Nazioartean ezarrita dauden euskal enpresak
3. Euskara	-Euskara interesatzen zaien herritarrak. -Haurrak eta haien familiak. -Kultura-elkarteak. -Kazetaritza-ikasleak. -Euskara ikasten ari diren helduak	-EiTBren materiala duten euskaltegiak. -Euskarazko komunikabideetako profesionalak. -Euskaltzaindia eta beste erakunde batzuk. -Unibertsitatea
4. Enpresa-iraunkortasuna	-Babestutako erakundeak eta proiektuak. -Euskal gizartea	-Enpresa-foroak eta -fundazioak
5. Ingurumen-iraunkortasuna	-Euskal gizartea	
6. Gizarte-iraunkortasuna	-Komunikabideetan interesa duten ikasleak. -Unibertsitateak eta ikastetxeak	-EiTBko langileen familiak
Bezeroak		
1. Gizartea	-EiTBko komunikabideetako ikus-entzuleak eta irakurleak	
2. Euskadi munduan	-Nazioarteko ikus-entzuleak	
3. Euskara	-Enpresa iragarleak	
4. Enpresa-iraunkortasuna	-Merkataritza-bezeroak	
5. Ingurumen-iraunkortasuna	-EiTBko komunikabideetako ikus-entzuleak eta irakurleak. -Merkataritza-bezeroak	
Hornitzaileak		
4. Enpresa-iraunkortasuna	-Euskadiko Ikus-entzuzkoen Clusterra (EIKEN). -Ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileak. -Outsourcing-langileak	
5. Ingurumen-iraunkortasuna	-Hornitzaileak (erosketa berdea)	
Enplegatuak		
1. Gizartea	-EiTBko enplegatuak eta kolaboratzaileak	
1. Euskara	-EiTBko enplegatuak eta kolaboratzaileak	
5. Ingurumen-iraunkortasuna	-EiTBko enplegatuak eta kolaboratzaileak	
6. Gizarte-iraunkortasuna	-EiTBko langileak	
Akziodunak		
1. Gizartea	-Kultura eta Ogasun sailak	
4. Enpresa-iraunkortasuna	-Kultura eta Ogasun sailak	
Administrazioa		
1. Gizartea	-Administrazioa. -Eusko Legebiltzarra	
2. Euskadi munduan	-Administrazioa. -Atzerrian dauden erakundeak eta ordezkariak	
3. Euskara	-HABE	
4. Enpresa-iraunkortasuna	-EiTBrekin erlazionatutako Eusko Jaurlaritzako sailak	
5. Ingurumen-iraunkortasuna	-Ingurumenarekin lotutako erakunde ofizialak	
6. Gizarte-iraunkortasuna	-Berdintasanarekin lotutako erakunde ofizialak	